

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2025eko zerga egutegia

Jakinarazten da hasi dela jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2025eko ordainketak egiteko aldia.

I. ORDAINTZEKO EPEA.

A) Borondatezko epea: 2025eko urriaren 2tik abenduaren 2ra.

Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak 2025eko urriaren 30ean kobratzeaz.

B) Epe exekutiboa: borondatezko epean ordaintzeko epea igaro eta ordainketa egin ez bada, zorrak premiamendu prozedura bidez eskatuko dira, honako hauetan jasotako moduan: Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikulua eta Dirubilletari buruzko Araudi Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 70. artikulua eta hurrengoak. Ondorioz, dagozkion errekarguak eta berandutze interesak sortuko dira.

II. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA.

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratzearen banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenez borondatezko epean baino ezin izango dute ordaindu, banketxean eta banku transferentziaren bidez. Horretarako, aldez aurretik, ordainagiria jaso beharko dute udaletxean, 10:00etatik 14:00etara.

III. GOMENDIOAK.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik izan bada, Armiñongo Udalarik horren berri eman behar zaio, baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, hurrengo jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Armiñon, 2025eko irailaren 3a

Alkatea

GORKA MEANA MARCOS